

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Eguneko arretarako landa zentroa erabiltzeagatiko prezio publikoak ezartzea eta prezio horiek arautzen dituen ordenantza fiskala behin-behinean onartzea

Udalbatzak, 2021eko irailaren 16ean egindako ohiko bilkuran, eguneko arretarako landa zentroa erabiltzeko zerbitzuagatiko prezio publikoak ezartzea eta prezio horiek arautzen dituen ordenantza fiskala behin-behinean onartzea erabaki zuen. Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauaren 16.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientea jendaurrean jarriko da hogeita hamar eguneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izango dituzte.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betiko hartu dela ulertuko da, ordura arte behin-behinekoa izan dena, eta ez da berriz erabaki beharrik izango. Ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratuko da.

Zambrana, 2021eko irailaren 16a

Alkatea

AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI